



mundukide

kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

2025 Txostena



www.mundukide.org



Iñigo Albizuri Landazabal

Mundukide Fundazioko lehendakaria

Lagun maiteak,

Ziurgabetasun, sumindura eta gatazka armatu garaiak bizi baditugu ere, gogoan izan behar dugu, aldi berean, badirela milaka pertsona, lankidetzatik, etorkizun hobea eraikitzeko lanean ari direnak.

Hori da jarraitu nahi dugun bidea: inposatu ez, adostea bilatzen duena; bestea ordezkatu beharrean haren bidelagun egiten gaituena; bestearenaz jabetu beharrean haiekin eraiki nahi duena. Gizarte burujabe eta bidezkoagoen eraikuntzan, lana, antolaketa eta lankidetzatza funtsezko elementua direla sinesten baitugu.


2025. urtea barne-aldaketa urtea ere izan da. Josu Urrutiak, 12 urtetan Mundukideko zuzendari izan ondoren erronka berriei heldu baitie. Urte hauetan, haren lana funtsezkoa izan da erakundea sendotzeko, eta biziki eskertu nahi dugu haren ekarpena. Orain Itsaso Erretolatza buru dugula, etapa berri bati ekingo diogu. Lasai eta gogotsu, urteotan egindako lana oinarri hartuta. Txosten honetan, egindako lanaren datuak eta azterketez bakarrik ez, elkarlanean kide ditugun pertsona, familia eta herrien berri ere izango duzue. Haiek baitira, gure lanaren benetako muina. Zeina pertsona eta erakunde askoren konpromisoari esker bakarrik den posible, hala nola kooperatibak, erakundeak eta kooperanteak.

Txosten hau irakurtzen duzuenok beste urrats bat ematera ere gonbidatu nahi zaituztegu, izan ere lankidetzatza pertsonekin, boluntario eta kooperanteekin egiten baita. Euren esperientzia, lana eta konpromezuarekin lankidetzatza gauzatzen duten pertsonak.

Munduak erronka handiak baditu ere, edo agian horregatik, asko dira etorkizun hobea eraikitzeko konpromisoa duten pertsonak. Hori da itxaropenerako arrazoi nagusia, eta bide horretan parte hartu nahi dugu.

Eskerrik asko guztioi.

NON EGITEN DUGU LAN



• Misioa eta baloreak	4
• Lanaren tamaina	5
• Hego Amerika	6
• Brasil	7
• Kolonbia	9
• Ekuador	10
• Afrika	11
• Mozambique	12
• Kooperanteak	14
• Mundukide gara	15
• Sentsibilizazioa	16
• Datu ekonomikoak	18



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Iturriotz 27- 1º 20500 Arrasate-Mondragón • Tel. 943 772010

mundukide@mundukide.org • www.mundukide.org

CIF: G20673604 / D.L.: SS 405-2016 / Edizioa: Mundukide Fundazioa



MISIOA

Gure zeregin nagusia tokiko pertsona eta erakundeekin elkarlanean lankidetzeta-programetan jardun eta proiektu solidarioak sustatzea da. Esperientziak, baliabideak eta jakintza partekatzen ditugu, partaideen garapen oso eta burujabea sustatzeko. Horretarako, lan kooperatiboaren elkartasuna sustatzen dugu, beti ere Mundukideren balio eta printzipioak oinarri eta gidalerro hartuta.



balioak

LANA

Ekintza eraldatzailerat hartzen dugu "lana", aldaketa-ekintzat, garapena lortzeko bidetzat. Mundukiden uste dugu lana balio bat dela, berez, eta kapitalaren gainetik dagoela.

ELKARTASUN UNIBERTSALA

Mundukideko parte-hartzaileon lanaren oinarria elkartasuna da, bai ekonomia solidarioko beste esperientzia batzuekin, bai demokrazia sozialaren alde diharduten guztiekin, azken horiekin bake, justizia eta garapen-helburu berberak partekatzen ditugula.

GIZARTE-ERALDAKETA

Mundukideren asmoa eraldaketa lortzea da, pertsonak eta gizarteak bidezkoagoak eta autogestionatuagoak izan daitezen esparru guztietan, baita genero-harremanen esparruan ere; ikuspegi horretatik, autonomia funtsezkoa da pertsona, kolektibo eta herri bakoitzak zer gizarte-eredu nahi duen erabaki dezan.

NOREKIN EGITEN DUGU LAN

4 | HERRIALDE
Brasil, Ekuador,
Kolonbia eta
Mozambike

20 | KOOPERATIBA

61 | TALDE
ETA ELKARTE

20.000 | NEKAZAL
FAMILIA

LANTALDEA

74 | **13** KOOPERANTE
61 LEKUKO LANGILE

80 | BEHIN-BEHINEKO
KOLABORATZAILEAK

LAN ILDOAK

4 | **1** AHOLKULARITZA KOOPERATIBOA
2 PERTSONEN TREBAKUNTZA
3 NEKAZARITZA GARAPENA
4 LAGUNTZA TEKNIKOA

KOOPERATIBEK ETA NEKAZARIEK SORTUTAKO IRABAZI GEHIGARRIAK

3.600.000€



HEGO AMERIKA



BRASIL

Mundukidek Brasilen duen programaren helburua talde zaugarrien egoera sozioekonomikoa hobea egitea da. 'Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra' (MST) elkartearekin batera egiten dugu lan, haren baitan dauden kooperatiben garapena lagunduz. Gaur egun, hiru lan ildo nagusitan egituratzen da programa: Brasil hegoaldean dauden

kooperatiben ekoizpen, merkataritza eta antolaketa gaitasunak indartzea. Brasil iparraldean bost kooperatiba-agroindustria berri sortzea. Brasil guztian zehar kooperatiben ekoizpena merkaturatzen duen denda sare zabala sustatzea.

KOLONBIA

Kolonbian bi programa ditugu martxan: Batean, Kolonia hego-mendebaldean hondakinak jaso eta birziklapenerako sailkatzen dituzten elkarteekin ari gara lanean. Prestakuntza eta bestelako laguntzen bidez elkartearen kudeaketa hobea egitea eta ofizioko birziklatzaileen errentak hobetzea dugularik helburu.

Bigarren programan emakume nekazari indigenekin ari gara elkarlanean. Haien familia ekonomia indartzeko asmoz. Horretarako, nekazaritza ekologikorako teknikak eta hurbileko merkaturatze bi-deak sustatzen ditugu.

Nariño departamenduko sei lurralde in-

digenetan eta Gran Tescual-eko Kabildo Indigenarekin ari gara elkarlanean.

EKUADOR

Mundukidek Ekuadorren duen programaren helburua garapen sozioekonomiko jasagarria bultzatzea eta Iparraldeko mugan eta Amazonian landa erakundearen elkartegintza indartzea da. Gaur egun, programak bi lan ildo ditu. Ildo nagusian, Toisan Korporazioarekin lankidetzan, 10 taldeekin ari gara lanean; ekintzaile gehienak emakumeak dira, eta produkzio, merkataritza, enpresa eta antolaketa gaitasunak lantzen ari gara.

"Kutakachi" merkaturatze sare amankomuna sortu da, salmentak handitzeko eta kanpoko merkatuetan iristeko. Bigarren ekintza-ildoan Amazoniako nekazari txikien elkarte batekin ari gara lanean, haien gobernagarritasuna eta plangintza sendotuz.

BRASIL

Ekoizpen kate agroekologiko osoaren indartzea



2025eko otsailan Movimento dos Trabalhadores sem Terra (MST) mugimenduaren baitan dauden kooperatibetako 200 ordezkariatik gora, nazio mailako batzar orokorrean parte hartu zuten Salvador de Bahian. Bost egunez, agro-ekologia eta elikagai osasungarrien ekoizpena ardatz hartuta, kooperatiben egoera aztertu eta hurrengo urteetarako ildo estrategikoak lantzen aritu ziren. Lan ildo estrategiko nagusia, elikagai ekologikoen ekoizpen kateen integrazioa izango zela adostu zuten; zeinaren

bidez nekazal ekoizpena, elikagaien prozesamendua eta salmenta bere osotasunean antolatu nahi dituzten, MSTren baitan. Testuinguru horretan 2025eko bigarren seihilekoan MST eta Mundukidek datozen urteetan kafea, esnea, arroza, babarruna edo eta hazien ekoizpen, prozesamendu eta salmantan diharduten kooperatiben hobekuntzan elkarrekin lan egitea adostu genuen. Hasiera gisa, 2026ean babarrun eta hazi ekoizpenean diharduten sei kooperatibetan elkarrekin aritzea adostu genuen.

Egitasmo honen baitan nekazaritza, agroindustria eta merkaturatze arloak landuko dira; teknologia, kudeaketa, inbertsioa eta antolaketa kontutan hartuz. Kooperatibei bide horretan laguntzeko hainbat erakundek osatutako lantaldea eratu da: Centro de Desenvolvimento Sustentável e Capacitação em Agroecologia (CEAGRO), Instituto de Pesquisa e Educação do Campo (IPE-Campo), Financiamento Popular para Produção de Alimentos Saudáveis (Finapop), MST zerbitzu orokorrak eta Mundukide. Zeregin honetan Mundukideko lantaldeak azken ia hamar urteetan MST hainbat kooperatiba esanguratsuri kudeaketan laguntzen bildutako esperientzia baliatu ahal izango du. Bestek beste COOPAN (arroza, behi esnea eta txerri haragia), COOTAP (arroza, behi esnea eta barazkiak), COPAVI (kaña azukrea, behi esnea eta barazkiak), edo eta COCAVI (babarruna, soja eta arraultzak).

BRASIL

Lurrik gabekoen lurrean, MST eta Mundukideren lankidetzaren fruituak



Brasilgo mugimendu sozial garrantzitsuenetakoa da Movimento dos Trabalhadores sem Terra (MST). MSTk 40 urte pasako historia du, eta dagoeneko 20 urte badira Mundukide eta MST elkar lanean ari direla. Gaur egun, MST eta Mundukide artean dagoen konfiantza eta adiskidetasuna urte guzti horietako lanaren emaitza dira.

Urteetan zehar kooperante askok egingdako lanaren emaitza da gaur egun MSTk eta Mundukidek elkarrengan duten konfiantza. Cantuquiriguaçu hirira iritsi ziren lehen kooperanteek zabaldu zuten bidea

hango kooperatiba bakanekin lanean. Ondoren Parana edo Rio Grande do Sul bezalako estatuetakoko kooperatiba elkarrekin aritu ginen. Cearan MSTk Mundu Bankuaren dirulaguntza batekin lagundutako hainbat kooperatiben berrirer sorreran ere aritu gara (ari gara).

Eta azkenik Brasil guztirako salmenta sare baten antolakuntzan (Armazéns do Campo) aritu gara.

Askotan, kooperanteen lana hezitzaile edo eta laguntzaile tekniko bezala ikusten badugu ere, beraien lanaren zati handi bat MSTren baitan harremanak

sortzea da. Lagungarri izan gintezkeen lekuetan lagungarri izan eta hortik sortutako adiskidetasuna eta konfiantza ideia berriak sustatzeko baliatzea.

MSTk, bere hamalagarren Nazio Kongresua ospatu berri du. Bertan Brasil guztitik etorritako kanpamentu, elkarte eta kooperatibetako 3.500 ordezkarri izan ziren. Bai eta nazioarteko 22 erakundetako bisitariak ere. Mundukideren aldetik lau kooperante, zuzendaria eta patronatuko lehendakaria izan ginen. MST-ko koordinatzaile orokor den João Pedro Stedilek berak, 3.500 pertsona horien aurrean Mundukide lankide estrategiko bezala aipatu zuen.

Gaur egun, Mundukidek MSTren ekoizpen sektoreko zuzendaritza mahaian parte hartzen du. Gure ekarpenak aintzat hartzen dituzte, eta horrek 450.000 familiak osatutako mugimendu sozial oso garrantzitsu batekin elkarlanean aritzeko aukera paregabea ematen digu.

KOLONBIA

Birziklatzaileak profesionalizazioan aurrera



2025ean, Kolonbiako hego-mendebaldeko ofiziozko birziklatzaileen elkarteak (ARSOC) kide diren elkarteek ematen duten zerbitzu publikoan eta kontabilitate-prozesuetan hobekuntza aukerak aurkitzeko asmoz barne auditoretzak egitea sustatu zuen.

Auditoretzei esker, finantza-egoerak, kontabilitate-euskarriak, fakturazioa eta zerbitzu publiko araudiaren betetze maila aztertu ahal izan ziren. Hala, erakunde bakoitzak bere egoera administratibo eta operatiboaren diagnostiko argia eskuratu zuen.

Diagnostiko horrek dokumentu-kudeaketa, informazioaren trazabilitatea eta Zerbitzu Publikoen Superintendentsiaren araudien aplikazio zuzena hobegotzeko aukerak aurkitzen lagundu zuen.

Superintendentsia, araudiaren betetzen dela, zerbitzu publikoa behar bezala ematen dela eta ofiziozko birziklatzaileen mesedetan funtzionatzen duela bermatzeko ofiziozko birziklatzaileen erakundeen gainbegiraketaz arduratzen den Kolonbiako gobernu-organoa izanik. Diagnostikoa, elkarte bakoitzak aurrera

eramango duen hobekuntza-planak zehazteko oinarria izan da.

Horrela, elkarteek aurrea hartu zieten balizko eskakizunei, eta arriskuak murriztu zituzten ikuskapen ofizialen aurrean; autonomian, gardentasunean eta beren kudeaketan konfiantza irabaziz.

Prozesua nabarmen pedagogikoa izan zen; izan ere, auditoretzak eginaz elkar-tekideek hobeto ulertu ahal izan zituzten aplikatutako irizpide teknikoak eta arau-irizpideak, eta aurkitutako bakoitza ikaskuntza bihurtu zuten.

Ikuspegi horrek barne-gaitasunak indartzea ahalbidetu zuen. Prestakuntza-ikuspegia duten auditoretzak sustatzen jarraitzea erakunde sendoa, prestatu eta iraunkorragoan aldeko apustua egitea da, erregulazio-erronkei segurtasunez aurre egiteko eta aprobetxamendu-zerbitzua gero eta lanbide profesionalago gisa sendotzeko gai direnak.

EKUADOR

Elkarlana eta nekazaritza, Andeetako emakumeen etorkizuna



2025ean, Mundukide-Ekuador Cotacachiko Indigena eta Nekazari Elkarleen Batasun Nazionalako Emakumeen Batzorde Zentralarekin (UNORCACen CCMU) elkarlanean hasi zen.

Erakunde hori kichwa erakunde indigena da, eta emakumeen eskubideen defentsa eta herri indartzearen alde dihardu.

CCMU 1996an sortu zen, auzo eta ekoizpen zeregin nagusien oinarrian emakumeak izanda ere, ikuspegi matxista nagusi zeneko testuinguru batetan, UNORCAC erakunde indigenaren

baitan emakumeen ekarpen erabakigarria bistartzeko asmoz. 2008an nortasun juridikoa lortu zuenetik, autonomia eta kudeatzeko gaitasuna indartu ditu. Inguruan eta nazioartean ere aitortza lortu du, besteak beste, 2023an Nazioarteko Elikagai eta Nekazaritza erakundeak (FAO) Andeetako chakra nekazal teknika SIPAM izendatu zuelarik.

Mundukidek azken urtetan Kutakachi sarearen baitan jora txitxa (arto ernetuz egindako usadiozko edaria) ekoizten duen taldearekin duen elkarlanaren baitan ezagutu zuen CCMU.

CCMUK 29 emakume-erakunde biltzen ditu, bai eta antzinako osasun-taldea eta Pachamama azoka ere. Elkarrekin beste nekazaritza agroekologikoa, usadioen zaharberritzea eta gertuko salmenta eta auzo aurrezkiak lantzen ditu. Oinarri sendo hori gorabehera, oraindik egiteko asko dago, eta asmo horrekin, 2025ean Mundukide eta CCMU plan pilotu bat lantzen hasi ziren, batetik 60 bat emakumeren parte hartzearekin lau auzotan nekazaritza-ekoizpen jasangarriaren sustapena; eta bestetik, CCMUren auzo egitura biziberritzeko asmoz barne antolakuntzaren indartzea helburu izanik.

CCMUrekin elkarlanak, Mundukide Kolonbiak Pastos herri indigenako emakumeekin eta Toisan elkarrearekin batera Intag haranean agroekologian egindako lana ditu oinarri.

AFRIKA



MOZAMBIKE

Mundukidek hogei urte pasa darama Mozambike iparraldeko nekazari-familiekin elkarlanean.

Mozambike munduan giza garapen eskasen duten herrialdeetako bat da. Txirotasuna, sakona eta orokortua da. Gehiengoa nekazaritzatik bizi da, lan guztia eskuz egiten da eta oso etekin apala dute. Iparraldean, programak lan egiten dueneko Niassa eta Cabo Delgado probintzietan, nekazari familiek lortzen duten uztaren urteko balioa 300 bat eurotako besterik ez da. Programaren helburua nekazal familiek euren lanari etekin hobea atera, eta diru-sarrerak, bizibaldintzak eta burujabetza hobegotzea da. Horretarako merkatu, erosle, produktu eta teknika berriak bilatzen dira, beharrezko diren laguntza teknikoa eta sargaiak familien eskura ipini, eta erosleekin harrema-

nak sortzen dira.

Programak hainbat merkatu-produktu-teknika aukera ezberdinen ekoizpen-salmenta prozesu guztia laguntzen du. Nekazal familia bakoitzak erabakitzen du uneoro zer labore egin, zer teknika erabili, zenbateko lur saila erabili, zenbateko inbertsioa egin edo eta uzta noiz eta nori saldu.

Eta programa nekazarien aukeretara egokitzen da. Nekazari askok lagungarrien zaiela erabaki duten bidea zabalduz, interes gutxi sortu duten bideak utzi eta etengabe bide berriak bilatuz. Programaren muina aukera berriak aurkitu eta eskaintzea da, baina nekazariena dira erabakia, lana eta irabazia.

Azkenik, aipagarria da programa erabat dagoela lekuko gizartean txertatuta: lantalde osoa landa eremuan, nekazarien ondoan, bizi da; lantaldearen %90 mozanbikearra da eta lan guztia lekuko nekazari elkarte, erosle, hornitzaile, garraiolari eta erakunde publikoekin elkarlanean egiten da. Eta modu honetan lan eginaz: nekazariengandik gertu, epe luzeko konpromisoarekin, aukera egokiak sortu eta nekazarien erabakiei jarraituz, lortu da urtetan zehar programan 30.000 nekazal familiatik gora parte hartu eta programak sustatutako aukera berriak baliatuz gaur egun urtean 6 milioi euro inguruko dirusarrera gehigarriak lortzea.

MOZAMBIKE

Programaren arrakasta behaketan oinarritzen da



Mozambikeko iparraldean bizi den behar gorriko egoera eraldatzen lagungarri izateko, funtsezkoa da lehenik tesuingurua, haren zailtasunak eta aukerak zehatz-mehatz ulertzea.

Horretarako, etengabeko behaketa, analisia, ikasketa eta datuetan oinarritutako erabakien inguruan egituratuta dago programa. Hala, adibidez, programak urtero, ereite garaia baina lehen programak eskainitako aukera bakoitzean interesa duten familien informazioa jasotzen du; lurren prestaketa hasi ondoren fami-

liek eskuratzen dituzten nekazal sargaien buruzko datuak biltzen ditu; ondorengo asteetan trebatzaileek ze familiekin lan egiten duten idatzi eta soroen GPS koordenadadun argazkiak egiten dituzte; uzta bildu aurretik, GPSz neurtzen dira lagundutako soro guztiak; uzta saltzerakoan berriz, non, zein erosle, zenbateko kopuruak eta zenbateko prezioetan erosten ari den erregistratzen da; eta nekazal urtearen amaieran, merkataritza-ministerioak eta bere tokiko ordezkariak dituzten datuekin alderatzen dira. Urtero

biltzen diren datuen kopuru handiak (adibidez, +20.000 GPS neurketa azken urtean), serie historiko luzeak eta iturrien aniztasunak, informazioaren fidagarritasun eta zehaztasuna hobeagotzen dituzte. Eta landa-eremuan gertatzen ari denari eta familia parte-hartzaileek egiten duten edo ez dutenari etengabe begira egotea funtsezkoa da programa benetan nekazarien zerbitzura dagoela bermatzeko (eta ez kooperante baten intuizioa edo tokiko lider baten hitz-jarioaren zerbitzura).

Uzta saldutakoan, lantaldea bildu eta datu guztiak aztertzen ditu, urtea ebaluatu eta jarraitu beharreko bidea zehazten dute: zein labore indartu, zein beste modu batetara saiatu, metodologia nola hobetu edo zein aukera berri aztertu. Horrela, programa, bere inguruaren etengabeko behaketan oinarrituta, urtez urte aldatu eta hobeagotu egiten da.

MOZAMBIKE

Tokikoen protagonismoan oinarritutako garapen-eredua



Gizarte-aldaketak eragin nahi dituen edozein ekimenetan, tokiko biztanleek lehentasunezko lekua izan behar dute. Mozambiqueko programan hori ez da nekazariekiko edo tokiko agintariekiko programak duen harremanean bakarrik gauzatzen, programaren barne egituraren ere halaxe da.

Tokiko 61 langilek eta behin behinero beste 80 langile kontratatutako programako lantaldean duten pisua handitzeko, bi izan dira funtsezko elementuak: prozesuen sistematizazioa eta barne-prestakuntzako sistema. Prozesuak eta metodologiak estanda-

rizatzeak, oinarritzko hezkuntza (lehen edo bigarren hezkuntza) duten gazteei funtzio konplexuetan ardura ematea posible egin du, hala nola mapa digitalak egitea, nekazar erosleekin eta administrazio publikoarekin harremanak, gizarte-gatazken bideratzea eta beste batzuk. Estandarizazioak eskuragarri egiten du guztientzat programaren ezagutza metatua. Bestalde, prestakuntza-sistema bat sortu da, zeinaren bidez, esperientzia handieneko taldeek hautagai berriak hartzen dituzte urtero zenbait hilabetez. Hautagai berriek ikuskatzaile eta idazkariei egunerokoan

laguntzen diete, benetako arazoak bideratzean parte hartu eta ezagutzak eta esperientzia eurenganatu. Azken hiru urteetan bakarrik, 30 pertsona baino gehiagok parte hartu dute prestakuntza praktikoa horietan, eta, ondoren, horietako batzuk programako lantaldean sartu dira. Estrategia horren emaitza antolaketa-eredu eraginkorragoa eta eskalagarriagoa da. Lehen 300 edo 400 familiarekin lan egiteko kooperante bat behar zen tokian, gaur egun tokiko hiru talderekin lankidetzan diharduen kooperante batek 6.000 familiarekin lan egitea lortzen du. Antolaketa honek, eraginkortasun operatiboa hobetzeaz gain, programaren iraunkortasuna indartzen du, kanpo-mendekotasuna murriztu eta tokiko gaitasunak sendotzen baititu. Eta gainera, gizarte-eraldaketa prozesu orok ezinbesteko duen tokiko protagonismoaren aldarrikapen praktikoa eta zuzena da.



LANTALDE ZABALA ERALDAKETAREN ZERBITZURA

Mundukidek lankidetzara kooperatiboa ulertzen du bere lanaren oinarri gisa: ez da kanpotik ematen den laguntza, baizik eta esperientzia dutenen eta lurraldea sakon ezagutzen dutenen arteko elkarlana. Ikuspegi hori erakundearen egituraren bertan islatzen da: Euskal Herriko 13 kooperantek eta Mozambike, Brasil, Kolonbia eta Ekuadorko 61 profesionalak osatzen dute taldea.

Kooperanteek nekazaritzan, kudeaketan edo komunitate-garapenean dute esperientzia. Hala ere, euren ekarpen nagusia ez da teknikoa; entzuten, ikasten eta konfiantza eraikitzen dakite. Horren adibide da Brasilen, duela 20 urte hasitako aliantzak bizirik jarraitzea. Azken kongresuan, MSTko koordinatzaile nagusiak Mundukide bazkide estrategikotzat aurkeztu zuen milaka lagun aurrean.

Tokiko profesionalak dira, ordea, proiektuaren benetako oinarria. Komunitateak gertutik ezagutzen dituzte, familiekiko harreman zuzena dute eta urteetan zehar konfiantza eta legitimitatea eraiki dituzte. Mozambiken, adibidez, taldearen %90 bertakoa da. Gainera, urtero profesional berriak prestatzen dituzte, eta horri esker jardueraren eragina nabarmen handitu da: lehen kooperante batek 400 familia artatzen bazituen, gaur egun 6.000 familiara iristen dira tokiko taldeen bidez.

Mundukideren indarra ez dago profil desberdinen baturan, haien arteko lankidetzan baizik. Kooperanteek eta tokiko profesionalak elkarrekin erabakitzen dute, elkarrekin ikasten dute eta elkarrekin definitzen dute norabidea. Horren emaitza dira kooperatibek sortzen dituzten 3,6 milioi euroko irabaziak.

Ez da laguntza. Lankidetzara da.

Mozambike



Elena Ramos de la Cruz
(Niassa)



Anna Sanz Prieto
(Niassa)



Lidia Moreno Jorge
(Niassa)



Maria Olivera Martin
(Cabo Delgado)



Verónica Romero Rodriguez
(Niassa)

Brasil



Julio Martínez Arijá
(Minas Gerais)



Natxo de Vicente
(Rio Grande do Sul)



Itziar Aranburu Agirre
(Ceará)



Andrea Antón González
(Ceará)



Asier Elorza Ugarte
(Santa Catarina)

Kolonbia



Iker Cabrejas De la Torre
(Nariño)



Jose Luis Lejardi Bernaola
(Cali)



Yon Arruti Chasco
(Ibarra)

61 lekuko langile



MUNDUKIDE GARA

Enpresa kooperatiba eta kooperatiba laguntzaileak


Erakunde laguntzaileak



Erakunde publiko laguntzaileak



Mundukide erakunde hauetako ideia da 2025 urte bukaeran:



SENTSIBILIZAZIOA



19.Huhezinema

Urtarrilak 21 eta 23 bitartean ospatu zen Huhezinemaren 19. jaialdi honetan, MU eta Mundukidek "Esker onak euriari" filmaren bueltan zineforuma antolatu

dugu. Filmak Kenyako, bere familiaren bizitza nolakoa den eta klimaaldaketak nola eragiten dien azaltzen du.

Helburua zinemagile gazteen artean gogoeta bat sortzea da: Munduko biztanleen artean dugun lekua, gure ekintzek edo ekintza ezak beste herri eta pertsona batzuegan, aberastasunean, boterean, subiranotasunean edo klimaaldaketan, dituzten ondorioek aztertu, eta guztiontzako giza eskubideen lorpena nola lagundu edo oztopatzen dugun.

X. Mundukideren Lasterketa Solidarioa

Urriak 19an X.Mundukide Lasterketa Solidarioa ospatu genuen 432 kirolari eta 30 kooperatibaren parte-hartzearekin. Lasterketan, 56 talderen arteko lehiari, Fagor Elektronika nagusitu zen emakumezkoetan, Orbea gizezkoetan eta Athlon mistoetan. Horrez gain, 220 parte-hartzailek oinezko ibilaldian hartu

zuten parte, eta 44 gaztek gazte-lasterketan.

Mundukiderekin batera Athlon, Ikerlan eta Ulma kooperatibak aritu dira antolatzaile lanetan. Antolakuntza-taldeak, bereziki, eskertu nahi izan die Fagor Ederlan, Copreci, Fagor Elektronika eta Athlon kooperatibei urte hauetan modu batera edo bestera lasterketari egindako ekarpenagatik. Baita 10 ediziotan bidelagun izan diren babesle eta laguntzaile guztiak.

MLSak Mundukideren balio komunitarioak indartzeaz gain, kooperatiben arteko lankidetzaren eta gizarte-kohesioa sustatzeko ekimen eredu garria dela berretsi du.



Munduari begirada bat

Ikasturtean zehar, Mundukide lankidetzan aritu da Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza eta Ingeniaritza fakultateekin.

Enpresagintzan, lehen mailako 120 ikaslek mundu globalarekin lotutako gaiak landu zituzten hiru saiotan. Ingeniaritzan, bigarren mailako 35 ikaslek hautazko ikasgai batean parte hartu zuten, non mundu mailako datu eta estatistikak baliatuz, ekonomia, migrazioa eta osasuna bezalako gaiak landu zituzten.



Hedabideak

Urtean zehar 62 artikulua argitaratu dira 12 komunikabidetan, eta 12 elkarrizketa egin dira irrati eta telebistetan, pobrezia-aren bidegabekeria eta gure gizartean lankidetzaren balioa salatuz. Gainera, 1.800 lagunek eta 41 entitatek hilero jaso duten albisteen buletina zabaldu dugu. Buletina jasotzeko, www.mundukide.org eman dezakezu izena.

HITZALDIAK

Programen, munduaren egoera eta lankidetzaren berri emateko hainbat hitzaldi antolatu ditugu: Bilboko Berrikuntza Faktorian, As Fabrik Kanpusean, Laboral Kutxa aretoan, Arrasateko Harreman GGKEan eta Goienagusí elkartearen, Mondragon Unibertsitateko hainbat graduetan, Iruñako UPNAko Agronomoetan, Aretxabaletako Huhezinema sarietan eta Madridero Centro de Capacitación Agraria de Villaviciosa de Odón ikastetxean.

LANDUTAKO GAIAK:



- Munduaren egoera, garapen jasangarrirako helburuak eta erantzukizun pertsonala.
- Mozambique iparraldean pobrezia gai ditzeko nekazal garapenerako aukerak sortzen.
- Afrika-Europa: aldaketa klimatikoaren nor-nori-nork.
- Mundukideren garapenerako lankidetzaren oinarriak.
- Zinemagile gazteekin gogoetak.

Hitzaldi bat antolatzeko, **613406924 telefonoan** jar zaitezke gurekin harremanetan.

DATU EKONOMIKOAK



DIRU SARRERAK	2.527.093 €	% 100
KOOPERATIBA LAGUNTZAILEAK	1.065.536 €	% 42
BAZKIDE LAGUNTZAILEAK	99.658 €	% 4
GGKE LAGUNTZAILEAK	52.106 €	% 2
ERAKUNDE PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK	914.588 €	% 36
BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	32.346 €	% 1
BESTELAKO DIRU SARRERAK	329.001 €	% 13
AURREKO URTETAKO SARRERAK	33.858 €	% 2
GASTUAK	-2.527.093 €	% 100
LANKIDETZA PROGRAMAK	-2.183.331 €	% 88
• MOZAMBIKE	-946.659 €	%37
• BRASIL	-565.441 €	% 22
• KOLONBIA	-424.671 €	% 17
• EKUADOR	-198.746 €	% 8
• INGURUMEN JASANGARRITASUNA	-28.924 €	% 1
• OROKORRA	-18.890 €	% 0
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	-101.387 €	% 9
KUDEAKETA GASTUAK	-242.375 €	% 3
EMAITZA	0 €	



INTERKOOPERAZIOA

- MOZAMBIKE
- BRASIL
- KOLONBIA
- EKUADOR
- INGURUGIROA
- BESTEAK

GASTUAK ATALKA

- LANKIDETZA PROGRAMAK
- SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIOA
- KUDEAKETA

Kontuak LKS Auditoresek auditatutakoak dira eta auditoriaren txostena <https://mundukide.org/eu/nor-gara/gardentasuna/> helbidean dago ikusgai, urteko kontuekin batera.